

**ERABAKIA, 2020ko URRIAREN 21ekoa, UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UPV/EHU<sub>n</sub> ETA TECNALIAN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2020) BEHIN BETIKO EBAZTEN DUENA**

Ikerketaren arloko errektoreordearen maiatzaren 29ko erabakiaren bidez argitaratu zen UPV/EHU<sub>n</sub> eta TECNALIAN ikertzaileak prestatzeko kontratazio deialdia.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Hautaketa Batzordeak eskaerak aztertu zituen eta oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen zituztenak ebaluatu, erabakitzeko zeintzuk ziren hautagarriak. Ondoren, aipatutako batzordearen iritziz hautagarri ziren pertsonen artetik aukeratu ziren kontratatuko zirenak, deialdian aipatutako ebaluazio irizpideei eta prozedurari jarraituta. Hautaketa prozesua bukatu ondoren, erabaki proposamena helarazi dio batzordeak Ikerketaren arloko errektoreordeari.

Deialdiko oinarrietan adierazitakoaren arabera, emango diren kontratuen kopurua aldatu ahal izango da erabakian, aurrekontuaren arabera edo gerora sortutako beste arrazoi batzuen arabera. Edonola ere, kontratu bakoitza emateko, UPV/EHUren eta TECNALIAren arteko hitzarmen espezifikoa sinatu beharko da. TECNALIAk UPV/EHU<sub>ri</sub> jakinarazi dio deialdian aurreikusitako kontratuak murriztu behar izan dituela, sortu diren antolaketa arrazoiengatik, eta ildo hauetarako aurreikusitako kontratuak ezabatu dituela:

- 6. gai ildoak: "Vuelo autónomo de dron guiado por visión".
- 7. gai ildoak: "Modelos basados en Deep Learning aplicados en realidad aumentada/mixta".

Horregatik guztiagatik, honako hau

**ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Onartzea emandako eta ukatutako laguntzen zerrenda, erabaki honetako I. eranskinean jasota dagoena.

**Bigarrena.-** UPV/EHUren eta TECNALIAren arteko hitzarmen espezifikoa sinatzea emandako kontratu bakoitzerako.

**Hirugarrena.-** Eskatzea onuradunei aurkez dezatela Ikerketaren arloko Errektoreordetzan kontratua egiteko beharrezkoa den dokumentazioa, eta esan dezatela zein egun zehatzetan hasiko diren lanean. Kontratua egin ahal izateko, onuradunak dagokion UPV/EHUko doktorego programa ofizialean matrikula egin beharko du, bertan onartua izan ondoren.

**Laugarrena.-** Agindua ematea erabaki Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzeko, eta interesdunei banan-banan jakinaraztea kontratua eman zaien ala ez.

**Bosgarrena.-** Erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta bide hauek erabil daitezke haren kontra, baina ez aldi berean inola ere:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke banakako erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu

beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen banakako jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, 8.3 eta 46. artikulua).

Leioa, 2020ko urriaren 21a

**José Luis Martín González**  
Ikerketaren arloko errektoreordea

## I. ERANSKINA

### EMANDAKO ETA UKATUTAKO LAGUNTZEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

#### EMANDAKO ESKAERAK

KODEA	NAN	EBAZPENA
<b>PIFTEC20/13</b>	72515117G	1. kontratua ematen da.
<b>PIFTEC20/16</b>	79125580Z	2. kontratua ematen da.
<b>PIFTEC20/23</b>	73130746S	3. kontratua ematen da.
<b>PIFTEC20/20</b>	16090481A	4. kontratua ematen da.
<b>PIFTEC20/09</b>	45919985W	5. kontratua ematen da.

#### UKATUTAKO ESKAERAK

KODEA	NAN	EZEZTATZEKO ARRAZOIA
<b>PIFTEC20/15</b>	16093378W	Ukatutako eskaera. Hautaketa Batzordearen ebaluazioaren ondorioz. Batzordeak deialdiaren oinarrian aipatutako ebaluazio irizpideak aztertu ditu eta erabaki du gaian zehaztutako profilarekin bat ez datorrela/7. gai ildoak bertan behera geratu da.
<b>PIFTEC20/06</b>	27363563A	Ukatutako eskaera. Hautaketa Batzordearen ebaluazioaren ondorioz. Batzordeak deialdiaren oinarrian aipatutako ebaluazio irizpideak aztertu ditu eta erabaki du gaian zehaztutako profilarekin bat ez datorrela.
<b>PIFTEC20/21</b>	44572153Q	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
<b>PIFTEC20/11</b>	45894172H	Ukatutako eskaera. Hautaketa Batzordearen ebaluazioaren ondorioz. Batzordeak deialdiaren oinarrian aipatutako ebaluazio irizpideak aztertu ditu eta erabaki du gaian zehaztutako profilarekin bat ez datorrela.
<b>PIFTEC20/01</b>	47895525A	Eskaera baztertu egin ez dituelako betetzen deialdian zehaztutako baldintzak (unibertsitateko titulua 2018/02/15a baino lehenagokoa da).
<b>PIFTEC20/14</b>	53983119A	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
<b>PIFTEC20/17</b>	72402041L	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
<b>PIFTEC20/07</b>	72552426F	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
<b>PIFTEC20/10</b>	78762606A	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
<b>PIFTEC20/04</b>	78953106V	Ukatutako eskaera, Hautaketa Batzordearen ebaluazioaren ondorioz. Batzordeak deialdiaren oinarrian aipatutako ebaluazio irizpideak aztertu ditu eta erabaki du gaian zehaztutako profilarekin bat ez datorrela.
<b>PIFTEC20/02</b>	78958960Y	6. eta 7. gai ildoak bertan behera geratu dira.

KODEA	NAN	EZEZTATZECO ARRAZOIA
PIFTEC20/03	79138347Q	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
PIFTEC20/19	79183284B	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
PIFTEC20/08	79492530E	Borondatezko ukoa.
PIFTEC20/18	F16777234	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.
PIFTEC20/12	R089786	Ukatutako eskaera. Hautaketa Batzordearen ebaluazioaren ondorioz. Batzordeak deialdiaren oinarrian aipatutako ebaluazio irizpideak aztertu ditu eta erabaki du gaian zehaztutako profilarekin bat ez datorrela.
PIFTEC20/05	Y6631682Z	Ukatutako eskaera, Hautaketa Batzordearen ebaluazioaren ondorioz. Batzordeak deialdiaren oinarrian aipatutako ebaluazio irizpideak aztertu ditu eta erabaki du gaian zehaztutako profilarekin bat ez datorrela/6. gai ildoan bertan behera geratu da.
PIFTEC20/22	Y7462443	Eskaera ez zen deialdiak zehaztutako epean eta forman aurkeztu.

**KONTAKTUA:**

- **Onuradunak:** [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus). Mezuaren gaian jarri "PIF TECNALIA deialdia".
- **Gainontzeko eskatzaileak:** [solicitudes-piftecnalia.dgi@ehu.eus](mailto:solicitudes-piftecnalia.dgi@ehu.eus) Mezuaren gaian jarri: "PIF TECNALIA deialdia".